

DONOSTIAN 2024. URTEAN JAIALDIAK ANTOLATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK	BASES POR LAS QUE SE ESTABLECE LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA LA ORGANIZACIÓN DE FESTIVALES EN DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN EL AÑO 2024
<b>1. artikulua. Xedea</b>	<b>Artículo 1. Objeto</b>
Donostia Kultura Enpresa Erakundearen dirulaguntzen plan estrategikoen barruan kokatzen dira dirulaguntzak hauek. Donostian musika, antzerki, dantza, liburu, ikus-entzunezko eta ikusmen arteen jaialdiak, diziplina anitzeko adierazpenak baztertu gabe, antolatzekeo diru laguntzak lehiaketa bidez emateko prozedura arautzea da oinarri hauen xedea.	En el marco del Plan Estratégico de Subvenciones de la Entidad Pública Empresarial Donostia Kultura, es objeto de las presentes bases regular la concesión de subvenciones para la organización de festivales de música, teatro, danza, libro, audiovisuales y artes visuales, no excluyéndose las manifestaciones multidisciplinares en Donostia/San Sebastián, en régimen de concurrencia competitiva.
Jarduerak honako baldintzak bete beharko dituzte:	Las actividades deberán cumplir los siguientes requisitos:
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Donostian gauzatuko dira 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Se desarrollarán en Donostia/San Sebastián entre el 1 de enero y el 31 de diciembre de 2024.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ikuspegi ekonomikotik bideragarriak izan behar dute (hori egiaztatzekeo aurrekontu orekatua aurkeztu beharko da) eta oinarri hauetako 14. artikuluan ezarritako mugak errespetatu behar dituzte.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Deberá ser económicamente viable, acreditando dicha viabilidad por medio de la presentación de un presupuesto equilibrado, y que respete los límites establecidos en el artículo 14 de las presentes Bases</li> </ul>
<b>2. artikulua. Diru kopurua</b>	<b>Artículo 2. Dotación económica</b>
DONOSTIA KULTURA Enpresa Erakunde Publikoak (aurrerantzean DONOSTIA KULTURA) deialdi honetarako izendatutako diru kopurua 110.000 eurokoa da, gutxi gorabehera.	La Entidad Pública Empresarial DONOSTIA KULTURA (en adelante, DONOSTIA KULTURA) destinará para la presente convocatoria una cuantía estimada de 110.000 euros.
Diru kopuru hori gehieneko kopurua da, eta gutxi gorabeherakoa.	La cuantía anteriormente fijada tendrá la consideración de cuantía estimada máxima.

Bestalde, deialdi honetako diru laguntzak emateko beharrezkoa izango da kreditu egoki eta nahikoa izatea 2024ko Aurrekontuan.	La concesión de las subvenciones de la presente convocatoria queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el Presupuesto de 2024 .
2024ko Aurrekontuan onartutako kreditua hasiera batean aurreikusitakoa baino handiagoa izanez gero, deialdiari aplikatzea edo ez erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin behar izan gabe.	En el supuesto de que el crédito presupuestario que resulte aprobado en el Presupuesto de 2024 fuera superior a la cuantía inicialmente estimada, podrá decidir su aplicación o no a la convocatoria, sin necesidad de nueva convocatoria.
<b>3. artikulua. Organo eskuduna</b>	<b>Artículo 3. Órgano competente</b>
DONOSTIA KULTURAKo Zuzendari Kudeatzailea da oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa.	El órgano competente para la aprobación de las presentes bases será la Dirección Gerencia de DONOSTIA KULTURA.
<b>4. artikulua. Aplikatu beharreko araudia</b>	<b>Artículo 4. Normativa aplicable</b>
Oinarri hauetan jasotako dirulaguntzek honako hau bete beharko dute: Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1).	Las subvenciones contempladas en estas bases estarán sujetas al Reglamento (UE) 1407/2013, de 18 de diciembre de 2013, de la Comisión Europea, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión europea a las ayudas de minimis (DOUE L 352/1, de 24 de diciembre de 2013).
Diru laguntza hauek emateko eta emalea eta erakunde onuraduna elkarri lotuko dituen harreman juridikoa finkatzeko, oinarri hauek eta diru laguntzak ematen direnean indarrean dauden arauak bete beharko dira.	La concesión de estas subvenciones y la relación jurídica entre la instancia otorgante y la persona o entidad beneficiaria se registrará por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.
Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (aurrerantzean Diru laguntzen Lege Orokorra) eta 887/2006 Errege Dekretuak hura garatzeko onartutako Erregelamendua hartuko dira kontuan.	En todo lo no previsto en las presentes bases, se aplicará la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones (en adelante, Ley General de Subvenciones) y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

<p>Era berean, diru laguntza hauek emateko modua eta diruz lagundutako proiektu eta jarduerak gauzatzeko arautuko dira honako hauek erabilita: 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa eta Donostiako Udalaren IV. Berdintasun Plana.</p>	<p>Asimismo, la concesión de las presentes subvenciones y la ejecución de los proyectos y actividades subvencionadas se desarrollará en el marco del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, así como en el marco de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y del IV Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.</p>
<p>Era berean, diru-laguntza hauek 2018-2022 Euskararen Erabilera Normalizatzeko 6. Plangintzaren esparruan baitan garatuko dira. 2024an zehar, 7. plangintzaldia onartzen denean, beraz izango da kontuan izan beharreko esparrua.</p>	<p>Igualmente, las presentes subvenciones se desarrollarán en el marco del 6º Plan de Normalización del Uso del Euskera 2018-2022. Cuando a lo largo de 2024 se apruebe el 7º periodo de planificación, éste será el marco a tener en cuenta</p>
<p><b>5. artikulua. Eskatzaileak</b></p>	<p><b>Artículo 5. Personas solicitantes</b></p>
<p>Oinarri hauen arabera diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte 1. artikuluan aipatutako jarduerak sustatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek.</p>	<p>Podrán solicitar subvenciones con arreglo a estas Bases cuantas personas físicas o jurídicas privadas que promuevan las actividades a las que se alude en el artículo 1.</p>
<p>Eskatzaileek Donostian izan beharko dute egoitza eta jarduteko esparrua, edo egoitza Donostian ez dutenen kasuan, DONOSTIA KULTURAREN ustez hiriarentzat interes berezia duen jardueraren bat egin beharko dute.</p>	<p>Además, las personas y entidades solicitantes deberán tener su domicilio y marco de actuación en Donostia/San Sebastián o, aún no teniendo su domicilio en Donostia/San Sebastián, realicen una actividad que DONOSTIA KULTURA considere de especial interés para la ciudad.</p>
<p>Azaroaren 17ko 38/2003 Diru laguntzen Lege Orokorraren 13.2 artikuluan (2003ko azaroaren 18ko BOE) aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak ezingo dira diru laguntza hauen onuradunak izan.</p>	<p>No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas o entidades en quienes concurra algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/ 2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (BOE de 18 de noviembre de 2003).</p>

<p>Norbanakoek edo erakundeek ezingo dute diru laguntzarik jaso, baldin eta Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin dituzten zorreatatik premiamendu bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ez eta Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke badituzte ere, harik eta zor horiek benetan ordaindu eta kitatzen dituzten arte; salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoen exekuzioa bertan behera utzita egotea.</p> <p>Egunean egon beharko da, bai eskaera aurkezteko datan, bai ordainketa bakoitzaren datetan.</p>	<p>Tampoco podrán concederse subvenciones a las personas o entidades que se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián u organismos autónomos o entidades municipales, ni aquellas que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.</p> <p>Se deberá estar al corriente tanto en la fecha de presentación de la solicitud como en las fechas de los distintos abonos.</p>
<p>Era berean, ezingo dira laguntzen onuradun izan martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak, Elkartzeko Eskubidea arautzekoak, 4. artikuluko 5. eta 6. ataletan araututako debeku zioak dituzten elkarteak (2002ko martxoaren 26ko BOE).</p>	<p>Igualmente, en ningún caso podrán obtener la condición de beneficiarias las asociaciones incurso en las causas de prohibición previstas en los apartados 5 y 6 del art. 4 de la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del Derecho de Asociación (BOE de 26 de marzo de 2002).</p>
<p>Era berean, ezin izango da laguntza hauen xede izan sexuagatik diskriminatzaileak diren edo 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenaren 3.1 artikuluan zehaztutakoak. Halaber, ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigorzehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, dagokion zehapenean ezarritako aldirian.</p>	<p>Tampoco podrá ser objeto de estas ayudas ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres ni podrán ser beneficiarios/as de ellas las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción</p>

<p>Proiektuek berdintasuna sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak ezabatzeko neurriak kontuan hartu behar dituzte. Deialditik kanpo geldituko dira eta ezingo dira diru-laguntza hauen onuradun izan hau kontuan hartzen ez duten proiektuak.</p>	<p>Los proyectos deben contemplar medidas para promover la igualdad y eliminar desigualdades entre mujeres y hombres. Quedarán excluidos de la convocatoria y no podrán ser beneficiarios de estas subvenciones los proyectos que no tengan en cuenta esta circunstancia.</p>
<p>Era berean, ezingo dute laguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera Berdintasun Plan bat indarrean eduki behar duten baina halakorik ez duten erakundeek, ez eta 50 langiletik gorako erakundeek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko legerian ezarritako baldintzetan.</p>	<p>Asimismo, tampoco podrán recibir ayudas las entidades que, debiendo tener un Plan de Igualdad vigente según la normativa del Estado, no la tengan, ni aquellas entidades de más de 50 personas trabajadoras que no acrediten haber establecido medidas para prevenir y combatir el acoso sexual o acoso por razón de sexo en los términos establecidos en la legislación del Estado en materia de igualdad de mujeres y hombre.</p>
<p>Diru laguntzen onuraduna izateko aurreko ataletan aipatutako debekurik ez duela egiaztatu beharko du eskatzaileak, 12222n/12223n <b>ESKAERA IMPRIMAKIKO</b> erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, diru laguntza eskatzeko web formularioaren bidez edota Diru laguntzen Lege Orokorrak 13.7 artikuluan xedaturiko beste edozein baliabide erabilita.</p>	<p>La justificación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario a que se refieren los apartados anteriores podrá realizarse mediante declaración responsable otorgada por la persona o entidad solicitante en el modelo de solicitud 12222n/12223n, <b>FORMULARIO WEB DE SOLICITUD</b> y/o a través de cualquiera de los medios contemplados en el art. 13.7 de la Ley General de Subvenciones.</p>
<p><b>6. artikulua. Diru laguntza eskaera</b></p>	<p><b>Artículo 6. Solicitud de subvención</b></p>
<p>Entitate interesdunek baliabide elektronikoa erabiliz eskatu eta egin behar dituzte izapide guztiak, oinarri hauetako 8. Artikuluan adierazitako eran.</p>	<p>Las entidades interesadas deberán solicitar y realizar todos los trámites de este procedimiento utilizando medios electrónicos en los términos indicados en el artículo 8 de las presentes Bases.</p>
<p>Diru laguntza eskaerak eredu ofizial elebidunean (12222n/12223n eredu) egingo dira. 8. artikuluan adierazitako Udalinfo bulegoetan eta udal webgunean dago eskuragarri ereduak: <a href="http://www.donostia.eus/Bulegobirtuala/Tramiteak">www.donostia.eus/Bulegobirtuala/Tramiteak</a></p>	<p>Las solicitudes de ayudas se presentarán mediante formulario web o se presentarán de acuerdo con el modelo de instancia oficial bilingüe (modelo 12222n/12223n) disponible en las oficinas de Udalinfo que se indican en el artículo 8, así como en la web municipal: <a href="http://www.donostia.eus/Oficinavirtual/Tramites">www.donostia.eus/Oficinavirtual/Tramites</a></p>

Eskatzaileek diru laguntza eskaera bakarra aurkeztu ahal izango dute.	Las personas y entidades solicitantes sólo podrán presentar una única solicitud de subvención.
Eskaera eredu osotasunean bete beharko da.	La instancia deberá cumplimentarse en su totalidad.
Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.	La presentación de la solicitud supone la aceptación expresa y formal de las condiciones que definen las bases de la presente convocatoria.
Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio prestaturako dokumentuak ez aurkezteko, baldin eta dokumentu horiek indarrean jarraitzen badute. Eskubide horretaz baliatuz gero, eskatzaileek jakinarazi egin beharko dute zein prozedura, zein administrazio-organori eman zaion eta noiz.	La ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, siempre que tales documentos conserven su vigencia. En caso de hacer uso de tal derecho, las personas solicitantes deberán comunicar con ocasión de qué procedimiento, ante qué órgano administrativo y en qué fecha fueron entregados.
Diru-laguntza eskabidea aurkezteak berarekin ekarriko du erakunde eskatzailearen baimena, organo emaileak Ogasunak eta Udal Dirubilketak eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak eman beharreko ziurtagiriak jaso ditzan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, zerga arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko.	La presentación de la solicitud de subvención conllevará la autorización de la entidad solicitante para que el órgano concedente recabe los certificados a emitir por la Hacienda y Recaudación Municipal y por la Tesorería General de la Seguridad Social conforme a lo establecido en el artículo 23.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones a fin de acreditar el cumplimiento de obligaciones tributarias y con la Seguridad Social
Zergak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordaintzen dituztenek kasuan kasuko Ogasunak emandako ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.	Quienes tributen fuera de la Comunidad Autónoma Vasca deberán presentar siempre los certificados de las Haciendas correspondientes.



<p>Egiaztagiri horiek baliodunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetan. Diru laguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza ordaintzen den unean egiaztagiria eman zen egunetik sei hilabete baino gehiago pasatu badira, organo emaileak zuzenean jasoko du ziurtagiri telematiko berria, edo entitateek, zergak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordaintzen badituzte, aurkeztu beharko dituzte berriro korronea dagoela frogatzen duten ziurtagiriak.</p>	<p>Dichos certificados tendrán validez durante el plazo de seis meses a contar desde la fecha de expedición. Si para el momento del pago efectivo de los distintos importes subvencionales hubieran transcurrido más de seis meses el órgano concedente obtendrá de forma directa nuevo certificado telemático o serán las entidades, en caso de que tributen fuera de la Comunidad Autónoma Vasca, las que deberán presentar nuevamente los certificados de estar el corriente</p>
<p>Diru laguntza eskatzean edo diru laguntzaren zatiak ordaintzen zaizkienean pertsonak eta erakundeek ez badauzkate egunean Udal Zerga Biltegiari, Ogasunari edota Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko zergak, 10 egun emango zaizkie, horren berri ematen zaien hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, betekizun horretan egunean daudela egiaztatzeko.</p>	<p>A las personas y entidades que en el momento de la solicitud de subvención y de los diferentes pagos no se encuentren al corriente del cumplimiento con Recaudación municipal, Hacienda y/o Seguridad Social, se les concederá un plazo de 10 días a contar desde el día siguiente a aquel en que se le comunique tal circunstancia, para acreditar estar al corriente en dicho cumplimiento.</p>
<p><b>7. artikulua. Dokumentazioa</b></p>	<p><b>Artículo 7. Documentación</b></p>
<p>Oinarri hauei erantsitako 12222n/12223n ereduaren arabera egindako eskaerekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira ezinbestez:</p>	<p>Las solicitudes, realizadas conforme al modelo 12222n/12223n deberán ir acompañadas necesariamente de la siguiente documentación:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b><u>Aurkeztutako proiektua</u></b> jasotzen duen jatorrizko dokumentua, pertsona eskatzaileak edo eskumena duen erakunderen organoak onartua, laguntzen den proiektuaren gastuak (kontzeptua eta zenbatekoa) eta diru sarrerak (jatorria eta zenbatekoa) biltzen dituen aurrekontuarekin batera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b><u>Original del proyecto</u></b> que se pretende sea subvencionado, aprobado por la persona u órgano competente de la entidad solicitante, junto con el Presupuesto de gastos e ingresos del proyecto.</li> </ul>
<p>Horretarako, eskaturiko xehetasun guztiak biltzen dituen eredia (12224n) oinarriekin batera eranskinean azaltzen da, gida moduan erabiltzeko. Eredua erabiltzen ez bada, aurkeztutako dokumentuak datu horiek guztiak jaso beharko ditu.</p>	<p>A tal efecto, se anexa a las bases el modelo (12224n) que pretende servir de guía a las personas y entidades solicitantes. En caso de no utilizarse el modelo, la documentación que se presente deberá contener todos los datos que figuran en el mismo.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b><u>Ingurumen memoria (I eranskina)</u></b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b><u>Memoria Ambiental (Anexo I)</u></b></li> </ul>

<p>Ingurumen memoria bat aurkeztu beharko da, I. eranskinean jasotzen den txantiloari jarraikiz.</p>	<p>Se deberá presentar una memoria ambiental del proyecto, redactada en base a la plantilla que aparece en el anexo I.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hondakinak sor ditzaketen objektuak (puxikak, lanparatxoak, publizitate orriak, plastikozko ahatetxoak...) ingurunean (airean, lurrian, ibaietan, etab) ez botatzeko <b><u>konpromiso sinatua.</u></b> Konpromiso sinatu hau nahitanahiezkoa da Sinatutako konpromiso hori nahitaezkoa da eta eskabidean bertan jasoko da (12222n/12223n ereduak).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b><u>Compromiso firmado</u></b> de que durante el festival no se van a liberar en el ambiente (en el aire, suelo, ríos, etc.) objetos que den lugar a residuos como globos, lamparillas, hojas publicitarias, patitos de plástico, etc. Este compromiso firmado es obligatorio y estará incluido en la propia solicitud (modelo12222n/12223n).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Indarrean dagoen Berdintasun Plana, horretara behartuta dauden erakunde onuradunen kasuan. Plan hori REGCON erregistroan (Hitzarmen Kolektiboen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailua) erregistratu beharko da.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>El Plan de Igualdad vigente en el caso de las entidades beneficiarias obligadas a tenerlo. Dicho Plan deberá estar registrado en el REGCON (Registro y Depósito de Convenios Colectivos, Acuerdos colectivos de trabajo y Planes de Igualdad).</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li><b><u>Pertsona edo erakunde eskatzaileari dagokion dokumentazioa</u></b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b><u>Documentación relativa a la persona o entidad solicitante</u></b></li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li><b><u>Pertsona fisiko</u></b> kasuan, eskaera sinatzen duen pertsonaren nortasuna egiaztatzen duen agiria: Nortasun Agiri Nazionalaren, pasaportearen edo kideko agiriaren kopia.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Quando se trate de <b>personas físicas</b>, acreditación de identidad de la persona firmante de la solicitud: copia del Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento similar.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li><b><u>Pertsona juridiko</u></b> kasuan:</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Quando se trate de <b>personas jurídicas</b>:</li> </ul>
<p>a) Herri Entitateen Erregistroan inskribatuta dauden erakundeek ez dute erakundeari buruzko agiri gehigarriarik aurkeztu beharrik izango.</p>	<p>a) Las entidades inscritas en el Registro de Entidades Ciudadanas no deberán aportar documentación adicional referente a la entidad.</p>
<p>Dena den, sinatzailearen kargua ez badator bat Erregistroan agertzen denarekin, izendapen eguneratuaren egiaztatzea aurkeztuko da.</p>	<p>No obstante, en el supuesto de que la persona firmante no coincida con la que figura en el Registro en el cargo correspondiente, se aportará documentación acreditativa del nombramiento actualizado.</p>



b) Herri Entitateen Erregistroan inskribatuta ez dauden erakundeek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:	b) Las entidades no inscritas en el Registro de entidades Ciudadanas deberán aportar la siguiente documentación:
- Erakundearen eratze eskritura eta estatutuak edo araudi erregulatzailerak, bai eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatuta dagoela egiaztatzen duten agiriak ere.	- Escritura de constitución y estatutos o normativa reguladora de la Entidad, así como acreditación de su inscripción en los Registros públicos correspondientes.
- Identifikazio fiskaleko zenbakiaren txartela.	- Tarjeta acreditativa del número de identificación fiscal.
- Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren identitatea egiaztatzeko agiria, bai eta haren ordezkaritza ahalordea egiaztatzeko agiria ere.	- Acreditación de la identidad del representante legal de la persona jurídica, así como acreditación del poder de representación que ejerza.
Eskatzaileak interesgarritzat jotzen duen edozein dokumentu aurkeztu ahal izango du, aurrekoen osagarri.	Esta documentación podrá ser complementada por cuanta otra que considere de interés la persona o entidad solicitante.
<b>8. artikulua. Aurkeztea</b>	<b>Artículo 8. Presentación</b>
Inprimakiak, behar bezala beteta, modu telematikoan edo aurrez aurre aurkeztu ahal izango dira.	Los impresos debidamente cumplimentados podrán presentarse de forma telemática o presencial.

<p>Pertsona fisikoen kasuan, eskaerak, ahal dela, bide telematikoa erabiliko da udal webgunearen bitartez eta bertan ezarritakoari jarraituz.</p> <p>Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluko behartutakoek bide telematikoa erabiliko dute udal webgunearen bitartez.</p> <p><a href="http://www.donostia.eus/Trámites y Servicios\Catálogo de Trámites">www.donostia.eus/Trámites y Servicios\Catálogo de Trámites</a></p> <p>Online eskaerak sinadura elektronikoaren bidez sinatuko dira. Horretarako, Herri Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 10. Artikuluan ezartzen duen sistemetako bat erabiliko da.</p>	<p>En el caso de la personas físicas, las solicitudes se presentarán, preferentemente, por el canal telemático a través de la web municipal conforme a los requerimientos en ella establecidos.</p> <p>Los obligados por el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo común de las Administraciones públicas, lo harán por el canal telemático a través de la web municipal</p> <p><a href="http://www.donostia.eus/Trámites y Servicios\Catálogo de Trámites">www.donostia.eus/Trámites y Servicios\Catálogo de Trámites</a></p> <p>La solicitud On Line, deberá firmarse utilizando alguno de los sistemas de firma electrónica contemplados en el art. 10 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p>
<p>Aurrez aurre aurkeztuz gero, udal webgunearen formatu digitalean baino ezingo da egin; deskargatu daitezkeen ereduak, horiek erabili behar dira, eta PDF artxiboetan aurkeztuko dira (CD, DVD edo USB euskarrian), formatu eta egitura hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Dokumentazio guztia PDF formatua duten fitxategietan erantsiko da, eta horretara 10 MB-ak gainditu gabe.</li> <li>- Dokumentazio atal bakoitzeko, PDF fitxategi bakarra aurkeztuko da.</li> </ul>	<p>En el caso de utilizar el canal presencial, sólo podrá hacerse en formato digital, utilizando los modelos descargables de la web municipal y por medio de archivos en PDF ( a través de soporte CD, DVD o USB) de acuerdo con los siguientes formatos y estructuras:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Toda la documentación se adjuntará en ficheros con formato PDF, no superando los 10 MB en su conjunto.</li> <li>- Se presentará un único archivo PDF para cada apartado de la documentación.</li> </ul>

<p>Eskaerak aurrez aurre tramitatuz gero, izapide elektronikoa bideratu eta eskatzaileei lagundu ahal izateko, Udalinfoko erregistroetan aurkeztuko dituzte eskabideak, behar bezala Beteta eta euskarri elektronikoa: astelehenetik ostiralera, Herritarrentzako Arreta Bulegoetan:</p> <p>-Easo 41 (9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara) (astelehenetik ostiralera)</p> <p>-Morlans eraikina, Morlanseko biribilgunea, 1 (9:00etatik 14:00etara) (astelehenetik ostiralera)</p> <p>-Altzako bulegoa, San Martzial plaza, 4 (9:00etatik 14:00etara) (astelehenetik ostiralera)</p>	<p>Para la tramitación presencial, con el fin de facilitar la tramitación electrónica y dar asistencia a las personas solicitantes, las solicitudes debidamente cumplimentadas y en formato electrónico se entregarán en los registros de Udalinfo, de lunes a viernes en las oficinas de atención ciudadana:</p> <p>-Easo 41 (de 9:00 a 14:00 y de 16:00 a 18:00) (de lunes a viernes)</p> <p>-Edificio Morlans, Rotonda de Morlans, 1 (de 9:00 a 14:00) (de lunes a viernes)</p> <p>-Oficina de Altza, Plaza de San Marcial, 4 (de 9:00 a 14:00) (de lunes a viernes)</p>
<p>Udalinfoko langileek jasoko dituzte PDF formatuko fitxategiak, bai eta aurkeztu izanaren egiaztatzea emango ere.</p>	<p>El personal de Udalinfo recibirá los archivos en formato electrónico (PDF) y emitirá el correspondiente justificante de presentación.</p>
<p>39/2015 Legearen 14.2 artikuluan Administrazioekin bitarteko telematikoen bidez harremanak izatera behartzen dituen interesdunentzat adierazitako betebeharraren kalterik gabe, halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako edozein bitarteko erabilita aurkeztu ahal izango dira eskaerak.</p>	<p>Sin perjuicio de la obligatoriedad señalada para los interesados obligados por el artículo 14.2 de la Ley 39/2015 a relacionarse con las Administraciones por medios telemáticos, las solicitudes podrán igualmente presentarse a través de cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.</p>
<p><b>9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea</b></p>	<p><b>Artículo 9. Plazo de presentación</b></p>
<p>Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epeak betetzeari dagokionez, ez da inolako salbuespenik egingo.</p>	<p>Las solicitudes deberán presentarse en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En ningún caso se exceptuará el cumplimiento de los plazos establecidos.</p>

<p>Eskaerak aurkezteko epea, beraz, oinarri hauek GAOn argitaratu eta hurrengo hilean amaituko da, argitaratze egunaren ordinala eta epea amaitzen den egunaren ordinala berdinak izango direlarik, azken egun hau baliogabea ez bada, behintzat. Baliogabea izanez gero, hurrengo egun balioudunean amaituko da.</p>	<p>En consecuencia, el plazo de presentación de solicitudes finalizará el día del mes siguiente cuyo ordinal coincida con el del día de publicación de las presentes bases en el BOG, salvo que dicho día sea inhábil, en cuyo caso, el plazo finalizará el día siguiente hábil.</p>
<p>Muga eguneko hilean hasierako egunaren baliokiderik ez bada, hilaren azken egunean bukatuko da epea.</p>	<p>Si en el mes de vencimiento no hubiera día equivalente a aquel en que comienza el cómputo, se entenderá que el plazo expira el último día del mes.</p>
<p><b>10. artikulua. Jarduerak jakinaraztea eta akatsak zuzentzea</b></p>	<p><b>Artículo 10. Notificación de actuaciones y subsanación de defectos</b></p>
<p>1. Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1 b) artikuluan xedatzen duenez, atal honetan aurreikusitako prozedurazko egintzak Udaletxeko Iragarki Taulan: (<a href="http://www.donostia.eug/bulegobirtual/a/ediktuenetairagarkientaula">http://www.donostia.eug/bulegobirtual/a/ediktuenetairagarkientaula</a>) argitaratzea nahikoa izango da, eta ez dago eskatzaileei banan-banan jakinarazi beharrik.</p>	<p>1. De conformidad con lo previsto en el art. 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la publicación en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento: (<a href="http://www.donostia.eus/oficinavirtual/tablonedictosyanuncio">http://www.donostia.eus/oficinavirtual/tablonedictosyanuncio</a>), de los actos procedimentales previstos en el presente apartado sustituirá a la notificación individualizada de los mismos.</p>
<p>Egintzak Iragarki taula horietan argitaratzen diren eguna izango da epeak zenbatzeko kontuan hartuko dena.</p>	<p>El día en el que los actos se publiquen en el citado Tablón será el determinante a efectos del cómputo de plazos.</p>
<p>Dena dela, organo instrukzio-egileak aditzera eman ahal izango du egintzak Iragarki Taulan jarri direla, bitarteko hauetakoren bat edo guztiak erabilita:</p>	<p>No obstante, el órgano instructor podrá dar publicidad a la colocación en el Tablón de anuncios de los distintos actos a través de todos o alguno de los siguientes medios:</p>
<p>– Kultur etxeetako iragarki tauletan oharrak jarrita: Casares (Altza), Lugaritz (Antiguo), Loiola (Loiola), Egia (Egia), Larrotxene eta Intxaurren (Intxaurren), Ernest Lluch (Amara), Okendo (Gros) eta Aiete.</p>	<p>– Avisos en los Tablones de anuncios de los Centros Culturales de Casares (Altza), Lugaritz (Antiguo), Loiola (Loiola) Egia (Egia), Larrotxene e Intxaurren (Intxaurren), Ernest Lluch (Amara), Okendo (Gros) y Centro Cultural de Aiete.</p>

<p>– Donostia Kulturaren eta Udalaren webgunetan aditzera emanda.</p>	<p>– A través de la web de Donostia Kultura y de la web municipal.</p>
<p>– Eskatzaileei telefono bidez, posta arruntaren bidez eta/edo mezu elektronikoen bidez jakinarazita.</p>	<p>– Avisos telefónicos, correo postal y/o al correo electrónico de las personas o entidades solicitantes.</p>
<p>2. Eskakerak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu, edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar eguneko epea emango zaie, egintza aipatutako iragarki Taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita – aurreko atalean aipatutako bestelako komunikazio bitartekoak gorabehera–, akatsak zuzendu edo falta diren dokumentuak aurkezteko.</p>	<p>2. Cuando la solicitud o la documentación adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas y entidades interesadas un plazo de diez días, contados a partir del día siguiente al de la publicación en el referido Tablón de Anuncios del requerimiento para su subsanación, sin perjuicio del uso de los otros medios de comunicación a que se refiere el apartado anterior.</p>
<p>Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, 39/2015 Legearen 68. artikulua adierazitakoari jarraituz ebazpena egin ondoren.</p>	<p>Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68 de la Ley 39/2015.</p>
<p>3. Artikulu honetan oro har aurreikusitako udaleko iragarki-taularen bidezko jakinarazpenaren ordez, jakinarazpen elektronikoa indibidualizatua edo jakinarazpen arrunt indibidualizatua egin ahal izango da.</p>	<p>3. La notificación a través del Tablón de Anuncios del Ayuntamiento prevista con carácter general en el presente artículo, podrá ser sustituida puntualmente por la notificación electrónica individualizada o por notificación ordinaria individualizada.</p>
<p><b>11. artikulua. Izapideak eta proposamena</b></p>	<p><b>Artículo 11. Instrucción y propuesta</b></p>
<p>1. Donostia Kulturaren Baliabideen Administrazio eta Kudeaketa Ataleko zuzendari teknikoari dagokio prozeduraren instrukzioa egitea.</p>	<p>1. La instrucción del procedimiento corresponderá a la Dirección Técnica del Área de Administración y Gestión de Recursos de Donostia Kultura.</p>

<p>Ebazpen proposamena egiteko beharrezkoak diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko egin beharreko jardura guztiak ofizioz egingo ditu organo honek. Beharrezkotzat jotako txosten guztiak eskatu ahal izango ditu, eta txosten horiek hamar egunen barruan igorriko dira, horien igorpena epe laburrago edo luzeago batean egitea eskatzen denean izan ezik; azken kasu horretan, ezingo da bi hilabete baino gehiago izan.</p>	<p>Este órgano realizará de oficio cuantas actuaciones estime oportunas para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos en virtud de los cuales debe formularse la propuesta de resolución. Podrá solicitar cuantos informes estime necesarios, que deberán ser emitidos en el plazo de diez días, salvo que requiera su emisión en un plazo menor o mayor, en este último caso no superior a dos meses.</p>
<p>Organo instrukzio-egileak, ezer baino lehen, laguntza hauen onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du. Espedientean sartuta egon behar du aipatutako organoaren txostenak, hark duen informazioaren arabera, onuradunak diru laguntzak eskuratzeko ezinbestekoak diren baldintza guztiak betetzen dituela adieraztekoak.</p>	<p>El órgano instructor verificará en primer lugar el cumplimiento de las condiciones impuestas para adquirir la condición de beneficiario de las presentes ayudas. En el expediente deberá obrar informe del citado órgano instructor en el que conste que, de la información que obra en su poder, se desprende que las personas y entidades beneficiarias cumplen todos los requisitos necesarios para acceder a las subvenciones.</p>
<p>2. Organo instrukzio-egileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak txostena egingo du eta bertan azalduko dira egindako ebaluazioaren emaitzak.</p>	<p>2. Evaluadas las solicitudes por el órgano instructor, la Comisión de Valoración constituida al efecto emitirá informe en el que concrete el resultado de la evaluación efectuada.</p>
<p>Balorazio Batzordea erakundeko atal eta zerbitzuetako arduradunek osatuko dute.</p>	<p>La Comisión de Valoración estará formada por los diferentes responsables de Áreas y Servicios de la entidad.</p>
<p>3. Espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, organo instrukzio-egileak behin-behineko ebazpen proposamena egingo du behar bezala arrazoituta; eta pertsona interesatuek hamar egun izango dituzte alegazioak aurkezteko.</p>	<p>3. A la vista del expediente y del informe de la Comisión de Valoración, el órgano instructor podrá formular propuesta de resolución provisional debidamente motivada, concediéndoles un plazo de diez días a las personas y entidades interesadas para la presentación de alegaciones.</p>



<p>Ebazpen proposamenaren jakinarazpena Iragarki Taularen bidez egingo da, oinarri hauetako 10. artikuluan aipatutako komunikazio bitartekoak erabili badaitezke ere.</p>	<p>Esta notificación se entenderá realizada por la publicación de la propuesta de resolución en el Tablón de Edictos y Anuncios, sin perjuicio del uso de los otros medios de comunicación a que se refiere el artículo 10 de las presente Bases.</p>
<p>Tramitazio hori saihestu ahal izango da prozeduran pertsona interesatuek aurkeztutako egintza edo alegazio eta probak baino ez daudenean, edo horiek baino kontuan hartzen ez direnean. Kasu honetan ebazpena behin betikoa izango da.</p>	<p>Se podrá prescindir de este trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por las personas y entidades interesadas. En ese caso la propuesta de resolución tendrá el carácter de definitiva.</p>
<p>4. Alegazioak aurkezten badira, horiek aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo du organo instrukzio-egileak, Balorazio Batzordearen txostena jaso ondoren.</p>	<p>4. Examinadas las alegaciones, en su caso presentadas, se formulará por el órgano instructor, previo informe de la Comisión de Valoración, propuesta de resolución definitiva.</p>
<p>Proposamenean honakoak jaso beharko dira: diru laguntza emango litzaiekeen eskatzaileen zerranda eta laguntzaren zenbatekoa; egindako ebaluazioa eta kontuan hartutako balorazio irizpideak; eta ezetsitako eskaerak, ezesteko izan diren arrazoiak zehaztuta.</p>	<p>Dicha propuesta deberá expresar la relación de personas y entidades solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía, especificando su evaluación y los criterios de valoración seguidos para efectuarla, así como las solicitudes cuya desestimación se propone y los motivos en que se fundamenta.</p>
<p><b>12. artikulua. Ebazpena</b></p>	<p><b>Artículo 12. Resolución</b></p>
<p>1. Behin betiko ebazpen proposamena onartu eta gero, Donostia Kulturaren zuzendari gerenteak prozeduraren ebazpena emango du, arrazoituta eta oinarrietan ezarritakoari jarraituz; gainera, prozeduran egiaztatu beharko dira ebazpenaren oinarriak.</p>	<p>1. Una vez aprobada la propuesta de resolución definitiva, la Dirección-Gerencia de Donostia Kultura resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.</p>
<p>2. Ebazpenean berriaz jasoko da gainontzeko eskaerak baztertu egin direla, hala egin bada, eta zergatik baztertu diren.</p>	<p>2. La resolución hará constar de manera expresa la desestimación, en su caso, del resto de las solicitudes y los motivos en que se fundamenta.</p>

<p>3. Ebazpenean honakoak jasoko dira: diru laguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua eta Oinarri hauetan, edo diru laguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudian, eskatutako gainontzeko baldintza eta betebeharrak guztiak.</p>	<p>3. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención, la forma de pago y demás condiciones y requisitos exigidos en estas Bases, o en la normativa vigente en el momento de su concesión.</p>
<p>Era berean, zerrenda batean jasoko dira, onuradun izateko oinarri erregulatuak ezarritako baldintzak betetzen badituzte ere, deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzen dutelako kontuan hartu ez diren eskaera guztiak. Oinarrietan aurreikusitako balorazio irizpideen arabera bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da bertan.</p>	<p>Asimismo, se incluirá una relación ordenada de todas las solicitudes que cumpliendo con las condiciones establecidas en las bases reguladoras para adquirir la condición de beneficiario, no hayan sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito fijado en la convocatoria, con indicación de la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos en las mismas.</p>
<p>Kasu horretan, onuradunetako batek diru laguntzari uko egingo balio laguntza hori emateko erabakia jakinarazi eta 15 egun naturaleko epean, diru laguntza ematen duen organoak, puntuazio ordenan atzetik dagoen eskatzaileari jakinaraziko dio 10 egun balioduneko epean diru laguntza proposamena onar dezan. Eskatzaileak proposamena onartzen duenean, organo eskudunak emakida ebazpena egingo du eta jakinarazi egingo du aipatutako bideak erabilita.</p>	<p>Si se renunciase a la subvención por alguno de los beneficiarios en el plazo de 15 días desde la notificación de la resolución de concesión, el órgano concedente comunicará a la persona o entidad solicitante siguiente en orden de puntuación esta circunstancia a fin de que acepte la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de 10 días hábiles. Una vez aceptada la propuesta por la persona o entidad solicitante, el órgano concedente dictará acto de concesión y procederá a su notificación en los términos establecidos en las presentes bases.</p>
<p>Puntuazio ordenan atzetik dagoenak proposamena onartzen ez badu, berdin jokatu da atzetik daudenekin.</p>	<p>Si la persona o entidad solicitante siguiente no aceptara la propuesta de subvención se procederá de la misma manera con las personas o entidades solicitantes siguientes a ésta.</p>
<p>Erakunde onuradunei dirulaguntza horiek emateko – eta, bidezko denean, ordaintzeko – ezinbestekoa izango da amaituta egotea aurreko ekitaldietako oinarri hauen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari diren itzulketak edo zehapen-prozedura guztiak.</p>	<p>La concesión y, en su caso el pago de las subvenciones a las entidades beneficiarias quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de estas mismas Bases correspondientes a ejercicios anteriores, se hallen todavía en tramitación.</p>

<p>4. Ebazpena iragarki Taularen bidez jakinaraziko da, oinarri hauetako 10. artikuluan aipatutako komunikazio bitartekoak erabili badaitezke ere. Eskatzaileek 15 egun naturaleko epea izango dute, jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz uko egiten ez badiote.</p>	<p>4. La resolución será notificada mediante su publicación en el Tablón de Edictos y Anuncios, sin perjuicio del uso de los otros medios de comunicación a que se refiere el artículo 10 de las presentes Bases. Las personas y entidades solicitantes dispondrán de un plazo de 15 días naturales a contar desde el día siguiente al de la notificación, para renunciar a la subvención. Se entenderá aceptada ésta si en el plazo anteriormente indicado no han manifestado expresamente la renuncia.</p>
<p>5. Behin betiko erabakia hartu eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Denbora hori pasatu eta berariazko ebazpenaren jakinarazpenik egin ez bada, diru laguntza eskaerak ez direla onartu ulertu beharko dute eskatzaileek.</p>	<p>5. El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de seis meses a partir de la fecha de publicación de la presente convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin que se haya notificado la resolución expresa, las entidades solicitantes podrán entender desestimadas sus solicitudes de subvención.</p>
<p>6. Ebazpenak baliogabetzeko arrazoiak izango dira administrazio prozedurako legeetan aurreikusita daudenak. Arrazoi horietakoren bat izanez gero, diru laguntza eman duen organoak ofizioz berrikusiko du, edo, hala badagokio, kaltegarritasun deklarazioa egingo du eta ondoren aurkaratu, administrazio prozedurako legeetan xedatutakoari jarraituz. Ebazpenak ez dira ofizioz berrikusiko diru laguntza itzultzeko arrazoiak daudenean.</p>	<p>6. Serán causas de nulidad o anulabilidad de las resoluciones las previstas en la legislación de procedimiento administrativo. Cuando concorra alguna de aquellas causas, el órgano que hubiera concedido la subvención procederá a su revisión de oficio, o en su caso a la declaración de lesividad y ulterior impugnación de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre procedimiento administrativo. No procederá la revisión de oficio de las resoluciones cuando concurren causas de reintegro.</p>
<p>7. Era berean, 39/2015 Legearen 109. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da egintzak ezeztatze eta akatsak zuzentzeko.</p>	<p>7. Asimismo, será de aplicación lo dispuesto en el artículo 109 de la Ley 39/2015 para la revocación de actos y la rectificación de errores.</p>

<p>8. Diru laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatzea –baldin eta honen xedea betetzat ematen bada– eta, edonola ere, aldi berean edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako diru laguntza edo bestelako laguntza bat lortzea, nahiko arrazoi izango da diru laguntzak emateko Ebazpena aldatzeko.</p>	<p>8. Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y, en todo caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier entidad pública o privada podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones.</p>
<p>Aldaketa idatziz eskatu beharko da, proiektua egiteko epea amaitu baino lehen, eta berariaz baimendu beharko da. Ondorio horietarako, ebazteko eskumena duen organoak dagokion aldaketa ebazpena emango du, emandako diru laguntzaren zenbatekoak egokitzeko.</p>	<p>La modificación habrá de ser solicitada por escrito antes de que concluya el plazo para la realización del proyecto y deberá ser autorizada expresamente. A dichos efectos, el órgano competente para resolver dictar la oportuna resolución de modificación en la que se reajustarán, en su caso, los importes de la subvención concedida.</p>
<p>9. Dirulaguntza emateak ez du esan nahi eskabidean proposatutako jarduerak gauzatzeko behar diren baimenak lortu direnik. Entitate onuradunaren erantzukizuna da jarduerak garatzeko behar diren baimenak eskuratzea.</p>	<p>9. La concesión de subvención no conlleva la consecución de los permisos necesarios para llevar a cabo las actividades propuestas en la solicitud. Es responsabilidad de la entidad beneficiaria recabar los permisos necesarios para el desarrollo de las actividades.</p>
<p><b>13. artikulua. Baloratzeko irizpideak</b></p>	<p><b>Artículo 13. Criterios de valoración</b></p>
<p>Aurkeztutako proiektuak baloratzeko, honako irizpideak erabiliko dira:</p>	<p>Para valorar los proyectos presentados se utilizarán los siguientes criterios:</p>
<p>a. <u>Proiektuaren interes kulturala:</u> 45 puntu arte.</p>	<p>a. <u>Interés cultural del proyecto:</u> hasta 45 puntos.</p>
<p>Nagusiki honako alderdiak hartuko dira kontuan:</p>	<p>Se considerarán principalmente los siguientes aspectos:</p>
<p>Proiektuaren kalitate artistiko eta teknikoa.- 20 puntu gehienez</p>	<p>La calidad artística y técnica del proyecto. – hasta 20 puntos</p>
<p>Izaera berritzailea.- 10 puntu</p>	<p>Su carácter innovador.- hasta 10</p>
<p>Ikus-entzule berriak sortu eta finkatzeko egiten duen ekarpena.- 5 puntu gehienez</p>	<p>Su contribución a la creación y consolidación de nuevos públicos. Hasta 5 puntos</p>
<p>Bertakoen parte hartzea programatutako jardueretan. -5 puntu gehienez</p>	<p>La presencia de participantes locales en las actividades programadas. – hasta 5 puntos</p>

Nazioarteko proiektzioa, edo kanpoan izan dezakeen hedapena eta oihartzuna. – 5 puntu gehienez	Su proyección internacional, o grado de difusión y repercusión que pueda tener en el exterior.- hasta 5 puntos
b. <u>Erakundearen ibilbidea eta jarduera:</u> 5 puntu arte.	b. <u>Trayectoria y actividad de la persona o entidad solicitante:</u> hasta 5 puntos
Honako alderdi hauek baloratuko dira:	Se valorarán los siguientes aspectos:
Eskatzailearen ibilbidea eta kaudimena. – 2 puntu gehienez	La trayectoria y solvencia de la persona o entidad solicitante. – hasta 2 puntos
Jaialdiaren edizio kopurua eta gizartean erroturik dagoen. – 2 puntu gehienez	Número de ediciones del festival y arraigo social. – hasta 2 puntos
Azken edizioetako ikus-entzule kopurua. – puntu 1 gehienez	Número de espectadores de las últimas ediciones. – hasta 1 punto
c. <u>Aurrekontua eta bideragarritasun ekonomikoa:</u> 20 puntu arte.	c. <u>Presupuesto y viabilidad económica:</u> hasta 20 puntos.
Nagusiki honako alderdiak hartuko dira kontuan:	Se considerarán principalmente los siguientes aspectos:
Aurkeztutako aurrekontua aurkeztutako jarduera edo proiekturako egokia izatea.- 10 puntu gehienez	La adecuación del presupuesto presentado a la actividad o proyecto presentado. – hasta 10 puntos
Jarduerak sortutako diru sarrerak.- 5 puntu gehienez	Nivel de ingresos generado por la actividad. – hasta 5 puntos
Beste finantzaketa iturri batzuk (beste diru laguntza batzuk, babeslea). – 5 puntu gehienez	Presencia de otras fuentes de financiación (otras subvenciones, esponsorización.) – hasta 5 puntos
d. <u>Euskararen erabilera:</u> 10 puntu arte	d. <u>Uso del euskera:</u> hasta 10 puntos
Nagusiki honako alderdiak hartuko dira kontuan:	Se considerarán principalmente los siguientes aspectos:
Hartzailearen araberako hizkuntza erabilera (haurrak, gazteak, publiko zabala...) – 10 puntu gehienez	Uso del euskera en atención al público destinatario (niños/as, jóvenes, público amplio...- hasta 10 puntos

e. <u>Berdintasuna</u> : 10 puntu arte + 2 puntu berdintasun ikastaroa egiteko konpromezuarekin	e. <u>Igualdad</u> : hasta 10 puntos + 2 puntos adicionales por compromiso de realizar curso de igualdad)
Epigrafe honetan bi puntu gehigarri emango zaizkio Donostiako Udalak 2024an emango duen berdintasun-ikastaroa egiteko konpromisoa hartzen duenari. Ikastaroaren izena “ <i>Proiektuetan genero ikuspegia eta berdintasun neurriak txertatzeko jarraibideak</i> ” .Ikastaro horrek 2 ordu inguruko iraupena izango du, eta 2024an gutxienez bi aldiz emango da.	Se concederán dos puntos adicionales en este epígrafe a quien se comprometa a realizar el curso de igualdad denominado “ <i>Proiektuetan genero ikuspegia eta berdintasun neurriak txertatzeko jarraibideak</i> ” que al efecto impartirá el Ayuntamiento de San Sebastián a lo largo del año 2024. Dicho curso tendrá una duración aproximada de 2 horas y se impartirá al menos dos veces en el año 2024.
Nagusiki honako alderdiak hartuko dira kontuan:	Se considerarán principalmente los siguientes aspectos:
Elkarteak Berdintasun Plana eta/edo sexu jazarpena eta sexuagatiko jazarpenean aurkako prebentzioa eta jardute protokoloa izatea. 2 puntu	Que la asociación cuente con un Plan de Igualdad y/o un protocolo de prevención y actuación contra el acoso sexual y por razón de sexo. 2 puntos
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako irizpideak barne hartzea elkarte eskatzailearen egituran eta funtzionamenduan. Zuzendaritza organoan emakumeak egotea Puntu 1	La incorporación de criterios de igualdad de mujeres y hombres en la estructura y funcionamiento de la entidad solicitante. Presencia de mujeres en el órgano de dirección. 1 punto
Genero berdintasunaren ikuspegia barne hartzea programaren helburuen eta ekintzen baitan. 1 Puntu	La inclusión de la perspectiva de igualdad de género entre los objetivos y acciones del programa. 1 punto
• Kontratututako pertsonak, emakumeak izatea lehenestea edo berdintasuneko formakuntza daukaten pertsonak lehenestea. Puntu 1	Priorizar personas contratadas, mujeres o personas con formación en igualdad. 1 punto
• Elkarteak emakume eta gizonen arteko berdintasun gaitan esperientzia eta ibilbidea izatea. Puntu 1	Experiencia y trayectoria de la asociación en materia de igualdad de mujeres y hombres. 1 punto
Dirulaguntzaren eskaera proiektuan berdintasunaren arloan sensibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak aurreikusita izatea, bai elkarte barneko kideentzat baita persona onuradunentzat. Puntu 1	Solicitud de subvención que en el proyecto tengan previstas acciones de sensibilización y formación en materia de igualdad, tanto para las personas asociadas como para las personas beneficiarias. 1 punto



Emakumeen parte-hartzea errazteko, jardueren ordutegiak edo ezaugarriak emakumeen behar izanetara egokitzea aurreikusita izatea. Puntu 1	Tener previsto adecuar los horarios o características de las actividades a las necesidades de las mujeres para facilitar su participación. 1 punto
Familia, lana eta norberaren bizitza uztartzeko edota erantzunkizuna sustatzeko neurriak aurreikusita izatea. Puntu 1	Tener previstas medidas de conciliación y/o fomento de la responsabilidad. 1 punto
Proiektuak emakumeen ahaldunderako ekintzak aurreikusiak izatea. Puntu 1	Que el proyecto contemple acciones para el empoderamiento de las mujeres. 1 punto
f. <u>Ingurumena</u> : 5 puntu arte.	f. <u>Medio Ambiente</u> : hasta 5 puntos.
Mugikortasuna, hondakinak eta energia arloetan ingurumen inpaktua gutxitzeko, Memorian zehaztutako neurriak hartuko dira kontuan. Balorazioa egitean, aintzat hartuko dira festibalaren tamaina eta arlo bakoitzari eragiten dion maila.	Se considerarán las medidas tomadas para reducir el impacto ambiental en los aspectos de movilidad, residuos y energía, que aparezcan en la memoria ambiental presentada. A la hora de realizar la valoración, se tendrá en cuenta la envergadura del festival y el grado en el que afecta a cada uno de esos ámbitos.
g. <u>Zailtasun fisikoak edo sozialak dituzten ikus-entzuleei edukiak ahalbidetzeko ekintzak</u> : 5 puntu arte	g. <u>Acciones para favorecer el acceso a los contenidos por parte de públicos con dificultades físicas o sociales</u> : hasta 5 puntos.
Diru laguntza jaso ahal izateko 50 puntu eduki behar dira gutxienez; gainera, 25 puntu lortu behar dira gutxienez, oinarri hauen 13. artikulua a) atalean (proiektuaren interes kulturalari buruzkoan).	La cantidad mínima de puntos para optar a subvención es de 50 puntos, debiéndose obtener además, al menos, 25 puntos en el apartado a) del presente artículo (relativo al interés cultural del proyecto).
<b>14. artikulua. Zenbatekoa eta mugak</b>	<b>Artículo 14. Cuantía y límites</b>
Diru laguntzen gehieneko zenbatekoa eskatzaileak aitortutako finantziazio beharra izango da, eta ezingo da hau baino handiagoa izan:	La cuantía máxima de la subvención será la necesidad de financiación declarada por el solicitante, que no podrá superar:
– proiektuaren kostu osoaren % 50 baino handiagoa izan; hau da, gutxienezko finantziario aurkeztutako aurrekontuaren %50 izango da. Finantziario iturriak publikoak zein pribatuak izan daitezke.	– el 50% del coste total del proyecto, esto es, todos los proyectos deberán contar con una financiación mínima del 50% del presupuesto presentado, proveniente de otras fuentes de financiación, pública o privada.

<p>– 20.000 euro; hau da, ez dira 20.000 eurotik gorako diru laguntzak emango.</p>	<p>– 20.000 euros, esto es, no se otorgarán subvenciones por importe superior a 20.000 euros.</p>
<p>Lortutako puntuazio osoa kontuan hartuta, eskaera guztien zerrenda antolatua egingo da, eta bertatik hautatuko dira bata bestearen atzetik puntuazio orokor handiena dutenak, erabilgarri dagoen kreditua amaitu arte.</p> <p>Emango den diru-laguntza beti izango da eskatu denaren berdina edo txikiagoa. Berdinketa egonez gero, lehentasuna izango du 13. artikuluan a) atalean (proiektuaren interes kulturalari buruzkoan) puntu gehien lortu dituenak.</p>	<p>Teniendo en cuenta la puntuación total obtenida, se confeccionará una relación ordenada de todas las solicitudes, de la que se seleccionarán sucesivamente los proyectos con la puntuación global mayor, hasta agotar el crédito disponible.</p> <p>La subvención concedida siempre será igual o inferior a la solicitada. En caso de empate, tendrá preferencia la solicitud con mayor puntuación en el apartado a) del artículo 13 (relativo al interés cultural del proyecto).</p>
<p>Diruz lagunduko den proiekturen batek eskatu duen kantitatea baino gutxiago jasotzen badu, pertsona edo erakunde eskatzaileari horren berri emango zaio 10 egun balioduneko epean diru laguntza onar dezan. Diru laguntza proposamena onartzen ez badu, puntuazio ordenan atzetik dagoenari jakinaraziko zaio eta horrela hurrenez hurren.</p>	<p>En caso de que algún proyecto financiado no alcance el importe solicitado, se comunicará a la persona o entidad solicitante esta circunstancia a fin de que acepte o no la subvención en el plazo improrrogable de 10 días hábiles. En caso de no aceptar la propuesta de subvención, se comunicará a la persona o entidad solicitante siguiente a aquella en orden de puntuación y así sucesivamente.</p>
<p><b>15. artikulua. Diruz laguntzeko moduko gastuak</b></p>	<p><b>Artículo 15. Gastos subvencionables</b></p>
<p>Diruz laguntzeko moduko gastutzat joko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zerikusi estua dutenak, ezinbestekoak direnak eta deialdi honetan ezarritako epean eskatzen direnak edo diru laguntza emateko ebazpenean, edo haren aldaketetan, definituta daudenak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze kostua inola ere ezingo da izan merkatuko balioa baino handiagoa.</p>	<p>Se consideran gastos subvencionables aquéllos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en esta convocatoria y en la resolución de concesión o sus posibles modificaciones. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.</p>

<p>Diru laguntza izan dezakete diruz lagundutako proiektua egiteko pertsonaleko gastuak, finantza gastuak, aholkularitza juridikoko edo finantzarioko gastuak, notariotza eta erregistro gastuak, adituen gastuak eta administrazio gastu espezifikoak, baldin eta zuzenean lotzen badira diruz lagundutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira jarduera behar bezala prestatzeko eta gauzatzeko. Edozein kasutan, antolatzaileei egotzitako gastuek ezin izango dute gainditu diruz lagundutako proiektuaren kostu osoaren %40<sup>a</sup>. Antolatzaileei egotzitako gastu horiek banakatu egin beharko dira diru-laguntza agiri bidez frogatzerakoan. Zehaztu egin beharko dira kontzeptuak, kantitateak eta onuradunak.</p>	<p>Los gastos de personal, los financieros, los de asesoría jurídica o financiera, los gastos notariales y registrales y los gastos periciales para la realización del proyecto subvencionado y los de administración específicos podrán ser subvencionables si están directamente relacionados con la actividad subvencionada y son indispensables para la adecuada preparación y ejecución de la misma. En cualquier caso, el porcentaje de los gastos vinculados a los/as organizadores/as no podrá superar el 40% del coste total del proyecto subvencionado. Dichos gastos vinculados a los/as organizadores/as deberán ser desglosados, en el momento de su justificación. Se deberán detallar los conceptos, el importe y los beneficiarios/as.</p>
<p>Ken daitekeen BEZaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagun daitekeen gastu gisa barnean hartu, baldin eta pertsona edo erakunde onuradunak zerga hori nahitaez aitortu behar badu. Kasu horretan, gastu gisa egotz daitekeen zenbatekoa frogagiriaren zerga oinarriari dagokiona izango da.</p>	<p>No se podrá incluir como gasto subvencionable el importe del IVA deducible cuando la persona o entidad beneficiaria esté obligada a realizar declaración del mencionado impuesto. En este supuesto, la cantidad imputable como gasto será la correspondiente a la base imponible de los justificantes.</p>
<p>Zeharkako kostuak, berriz, diruz lagundutako jardueraren onuradunak konputatu beharko ditu, betiere zentzuz dagokion zatian –oro har onartzen diren kontabilitate printzipioen eta arauen arabera– eta beti kostu horiek jarduera benetan egiten den aldiari dagozkien heinean.</p>	<p>Los costes indirectos habrán de imputarse por el beneficiario a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidos y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se realiza la actividad.</p>
<p>Zeharkako kostuek ezin izango dute gainditu diruz lagundutako proiektuaren kostu osoaren % 10. Zeharkako kostuen barruan sartzen dira onuradunak garatzen dituen jarduerari egotz dakizkien kostu aldakorrek zein, jarduera jakin bati egotzen ez bazaizkio ere, diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezkoak diren egitura kostuak.</p>	<p>Dentro de los costes indirectos, cuyo porcentaje no podrá superar el 10% del coste total del proyecto subvencionado, se incluyen tanto los costes variables, imputables a varias de las actividades que desarrolla el beneficiario como los costes de estructura que, sin ser imputables a una actividad concreta, son necesarios para que la actividad subvencionada se lleve a cabo.</p>

<p>Tresneria ondasunen erosketa, halaber, laguntzaren justifikazioari egotz dakioke, baina soilik diruz lagundutako jardueraren garapenean izango duen amortizazioari dagokion zati proportzionalean –oro har onartzen diren kontabilitate arauen arabera–, betiere ondasunen erosketa diruz lagundu ez bada.</p>	<p>La adquisición de bienes de equipo, sólo podrá imputarse a la justificación de la ayuda en la parte proporcional correspondiente a su amortización a lo largo del desarrollo de la actividad subvencionada, de conformidad con las normas de contabilidad generalmente aceptadas y siempre que la compra de los bienes no haya sido subvencionada.</p>
<p>Erabat kanpo geratzen dira higiezei eta ibilgailuei dagozkien amortizazio gastuak.</p>	<p>Quedan expresamente excluidos los gastos de amortización correspondientes a inmuebles y vehículos.</p>
<p>Donostia Kulturaren espazio eta esparruak erabiltzen badira, diruz lagundutako jarduerak baldintza onuragarriagoak izango dituzte espazio horien alokairu prezioetan.</p>	<p>En el caso de que se vayan a utilizar espacios y recintos de Donostia Kultura, las actividades subvencionadas gozarán de condiciones más ventajosas en los precios de alquiler de dichos espacios.</p>
<p><b>16. artikulua. Beste diru laguntzekin batera jasotzea</b></p>	<p><b>Artículo 16. Concurrencia con otras subvenciones</b></p>
<p>Honako deialdi honetan xedaturiko laguntzak bateragarri izango dira helburu bererako edozein administrazio edo erakunde publikok nahiz pribatu nazionalak, Europar Batasuneko edo nazioarteko ematen dituzten beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuk lortzearekin, hurrengo atalean xedatua ere indarrekoa izango dela.</p>	<p>Las ayudas previstas en la presente convocatoria serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado siguiente.</p>
<p>Deialdi honen DONOSTIA KULTURAK emandako diru laguntzak, berak bakarrik edo beste diru laguntza, laguntza, sarrera, eta errekursoekin batera, ezin izango du inolara ere entitate onuradunak egin beharreko jardueraren kostua gainditu.</p>	<p>El importe de las subvenciones otorgadas por DONOSTIA KULTURA en virtud de esta convocatoria en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, supere el costo de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.</p>
<p><b>17. artikulua. Onuradunaren betebeharrak</b></p>	<p><b>Artículo 17. Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria</b></p>
<p>Onuradunak honako betebeharrak izango ditu:</p>	<p>Son obligaciones de la entidad beneficiaria:</p>

<p>a. Diru laguntza emateko arrazoia izan den jarduera edo jardunbidea gauzatu zein konpromisoa hartzea.</p>	<p>a. Realizar la actividad o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.</p>
<p>b. Jarduera gauzatu duela edo jardunbidea hartu duela eta diru laguntza eskuratzeko baldintzak eta betebeharrak bete dituela egiaztatzea.</p>	<p>b. Acreditar la realización de la actividad o la adopción del comportamiento, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinen la concesión o disfrute de la subvención.</p>
<p>c. Donostia Kulturari eta hirugarrenoei sortzen zaizkien kalteez erantzun beharko du. Horretarako, diruz laguntzen den proiektutik sortzen den erantzukizuna bermatzeko aseguru poliza bat kontratatu beharko du eta proiektua egikaritzen den bitartean mantendu.</p>	<p>c. Responder de todos los daños y perjuicios ocasionados a Donostia Kultura y a terceros en el desarrollo de la actividad subvencionada. A tal efecto, deberá suscribir y mantener durante la ejecución de la actividad subvencionada una póliza de seguro que garantice de forma adecuada y suficiente la responsabilidad derivada de la actividad objeto de subvención.</p>
<p>d. Diruz lagundutako jarduera gauzatzeko beharrezko baimenak eskuratzea eta haietan agindutakoa betetzea.</p>	<p>d. Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada y cumplir sus determinaciones.</p>
<p>e. Diru laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntzea; jarduera horiek egiteko eskatutako informazio guztia emango da.</p>	<p>e. Someterse y colaborar en los términos de la legislación vigente a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente, así como cualesquiera otras de comprobación y control financiero que puedan realizar los órganos de control, aportando cuanta información le sea requerida en el ejercicio de las actuaciones anteriores.</p>

<p>f. Kontuen liburuak izatea, erregistroak beteta eta bestelako dokumentazioa behar den moduan ikuskatua izatea. Merkataritzarako legediak esaten duenaren eta diru laguntza jasoko duen onuradunaren sektorerako hitzarmenak dioenaren arabera egon beharko da dokumentazio guztia. Gainera, diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak exijitutako kontabilitateko egoeraorriak eta erregistroak ere izan beharko dira, egiaztatze eta kontrol jarduerak egoki egiten direla egiaztatzeko.</p>	<p>f. Disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial aplicable al beneficiario en cada caso, así como cuantos estados contables y registros específicos sean exigidos por las bases reguladoras de las subvenciones con la finalidad de garantizar el adecuado ejercicio de las facultades de comprobación y control.</p>
<p>g. Jasotako diru laguntzaren erabilera egiaztatuko duten agiri guztiak gorde behar dira lau urtean, baita elektronikoa ere, egiaztatze eta kontrol jardueretarako erabili daitezkeelako. Epe hau justifikazioa aurkezteko epea bukatzen denetik hasita kontatuko da.</p>	<p>g. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control, durante un plazo de cuatro años a contar desde la finalización del plazo de presentación de la justificación.</p>
<p>h. Lagundutako proiektua laguntzeko beste edozein administrazio edo erakundetatik (publiko nahiz pribatua, nazio mailako nahiz nazioartekoa) jasotako diru laguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak organo emaileari jakinaraztea, halakorik jaso bada.</p>	<p>h. Comunicar al órgano concedente, en su caso, la obtención de subvenciones o ayudas para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes, tanto públicos como privados, nacionales o internacionales.</p>
<p>i. Diru laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri ematea.</p>	<p>i. Comunicar la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.</p>
<p>j. Oinarri hauek aurreikusitako egoeraren bat gertatuz gero, jasotako diru laguntza itzultzea.</p>	<p>j. Proceder al reintegro de los fondos percibidos en los supuestos previstos en estas bases.</p>
<p>k. Diruz lagundutako jarduera zabaltzeko ekintzetan garbi adierazi beharko da DONOSTIA KULTURAK diru laguntza eman duela, erakundearen Komunikazio eta Irudi sailak II eranskinean "Komunikazioa eta Irudia" finkatzen duen irizpideen arabera.</p>	<p>k. En las acciones de difusión de la actividad subvencionada deberá hacerse constar la colaboración, mediante subvención, de DONOSTIA KULTURA, según criterios fijados en el anexo II "Comunicación e Imagen" por el Departamento de Comunicación e Imagen de la Entidad.</p>



